


erakusketa

| eskultura



Christiane Giraud



Hiru lauki gorriak

140 x 0.23 x 0.28 m

Zuraren eta zu zarenaren eskultorea

Christiane Giraud artistak eskultura egiten ikasten du Baionako Arte ederretako goi-mailako eskolan. Bere helburu nagusia da « orekaren edireitea gogoetaren eta ekintzaren artean ». Bere ibilbide joria ezaguna bilakatua da, Euskal Herrian eta kanpoan, azoketan eta erakusketetan parte hartuz, besteak beste.

Hogeitamar urte hauetan, metala, harria, bainan oroz gainetik zura lantzen du. Marrek eta kurbek gainditzen dituzte formak eta ekaia. Obrak mentalak bezain fisikoak dira, eskultoreak harreman berezia baitauka forman ezartzen duen materiarekin.

Christiane Giraud-en obretan, giza-emakumeen gorputzak bizi dira, egurrezko gorputzak, legunak edo gordinak, grabatuak edo erreak, bolumen arin edo abstraktuak. Horiek oro, koherentzia handi batekin.

Bainan eskultura bakoitzak bere historia badauka, artistari ez baitzaio lehenik gorputzaren irudipena interesatzen, baizik eta gordetzen duena : beste errealitate bat, ikusezina eta mugikorra, jendeen barne bizia.

“Artista beti jostatzen da bi mundurekin: kontzientea eta inkontzientearekin, menperatzen duena ala ez. Tentsio horiek oro aberasgarriak dira. Dena baliatzen da ikerketa artistiko batean, norberaren guzti-guztia” dio Christiane Giraud eskultoreak.

Christiane Giraud estudia escultura en la Escuela Superior de Bellas Artes de Baiona. Su principal objetivo es “buscar el equilibrio por medio de la reflexión y la acción”. Ha participado en exposiciones y ferias tanto en Euskal Herria como fuera de ella.

En estos treinta años, ha trabajado el metal, piedra, pero, sobre todo, la madera. Las líneas y las curvas destacan sobre las formas y la materia. Las obras son tan conceptuales como físicas, puesto que la autora mantiene una estrecha relación con la forma que se le da a la materia.

En la obra de ésta escultora los cuerpos humanos tienen vida propia, cuerpos de madera, suaves y rudos a la vez, grabados o quemados, con volúmenes abstractos, pero siempre manteniendo una coherencia entre sí.

Cada escultura tiene su propia historia, ya que a la artista lo primero que le interesa no es la imagen física, si no lo que la materia esconde de sí misma: una nueva realidad, invisible y en movimiento, que a la vez vive dentro del espectador.

El artista siempre juega entre dos mundos: el consciente y el inconsciente. Todo ello se convierte en la reflexión e investigación artística” mantiene la escultora Christiane Giraud.



Arbolen hitza (triptikoa)

200 x 0.95 m

Arbolen hitza –diptikoa)

200 x 0.60 m





Zauria

1.83 x 0.40 x 0.23 m

Haiku | 110 x 0.28 m






Asmakaria

100 x 0.36 m



Haustura | 100 x 0.80 m

Lurreratzekoa | 102 x 0.72 m



Biografia

Christiane Giraud

Baionan (Lapurdi) sortua
Uztaritzen bizi eta lan egiten

Bakarkako erakusketak eta kolektiboak:

Baiona, Biarritze, Paue, Getaria, Angelu, Bordele, Parise, Tolosa (Okzitaniakoa), Ordizia,
Zumarraga, Andoain,...

Nazioarteko eskultura sinposioak:

Sydney, Adelaïde (Australia)

Azoka berezituak:

Parise, Geneva, Bordele, Estrasburgo, ...

Artista egonaldiak eta ekintza publikoak

Erosketa publikoak:

Paueko Arte ederraren museoa, Baionako Euskal erakustokia, Angeluko Herriko Elxea, ...
Bilduma pribatuak Frantzian eta atzerrian.



gernika-lumo 2010

KULTUR-ETXEA

martxoaren 18tik apirilaren 7ra

